



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko azaroaren 28a

144. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).
- Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen duena Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Testu Bategina, zeina apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsi baitzen. Proposamena erretiratzea (4. or.).

#### C SAILA:

##### **Bestelako proposamenak:**

- Lege proposamena, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen dituena. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarrekin aurkeztu dute. (5. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu Hiesaren Plan Nazionalaren alorrean diharduten GKEak aintzatetsi, babestu eta diruz laguntzeko. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen baitio Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak Kuban mantentzen duen blokeo politiko, ekonomiko, komertzial eta finantzarioa altxatzeari. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu manifestazio baketsurako eskubidea mugatzen edo erreprimitzen duen jarduketa oro. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak zeharo arbuiatzen baititu Uharteko Aniztasunaren Harresian egindako pintaketak, eta Skolae hezkidetzeta-programa zeharo babesten duela berresten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Gobernuaren 2019rako aurrekontuetan lankidetzara bideratutako diru-kopuruari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Erripagaineko udalez gaindiko plan sektorialari buruzkoa. Rubén Velasco Fraile jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Ingurumenaren babesari buruzko legeari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Etxebizitzarako eskubide subjektiboari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, PA-30 errepidearen gainean pasabide bat eraikitzeko Nafarroako Gobernua Iruñeko eta Orkoien-  
go udalekiko akordio bat susta zezan premiatzen zuen mozioari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, bizi-testamentuari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko zainketa aringarrien zerbitzuari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Adingabe transexualak dauzkaten familiei zuzendutako laguntzako plan integral baten premiari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Cascanteko Santa Vicenta María Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Portugalen, Marokoren eta Espainiaren artean futboleko munduko txapelketa antolatzeke aukerari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Brexitak Nafarroako ekonomian izan litzakeen ondorioei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (16. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektua.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Talde parlamentarioen zein foru parlamentarien elkarteen eledunek eskatu dute Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea luzatzea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikuluaekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2018ko abenduaren 13ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2018ko irailaren 6ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Lege proiektua.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Talde parlamentarioen zein foru parlamentarien elkarteen eledunek eskatu dute Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea luzatzea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikuluaekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2018ko abenduaren 11ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2018ko urriaren 19ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen duena Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Testu Bategina, zeina apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsi baitzen**

*PROPOSAMENA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Jasotzat ematea Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Testu Bategina, zeina apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsi baitzen, hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena erretiratu izana. Foru Lege

proposamena Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu zuen eta 2018ko azaroaren 13ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

---

**C saila:**  
**BESTELAKO PROPOSAMENAK**

---

**Lege proposamena, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen dituen.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioek eta Ezkerda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen dituen Lege proposamena aurkeztu dute, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen dituen Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Lege proposamena presaz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

**3.** Lege proposamena Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoa bete dezan, eta Gobernuari ohartaraztea bere irizpidea adierazteko epea zortzi egunekoa dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Lege Proposamena, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen dituen.**

Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 193. artikulua 2. apartatuak hauteskunde-gastuaren muga arautzen du, halako moduan non muga hori izanen baita “alderdi, federazio, koalizio edo elkarte bakoitzak bere zerrendak aurkezten dituen barrutietako zuzenbideko populazioei dagokien biztanle-muga bider 0,11 euro egitekin ateratzen dena”.

Jarraian, 2. apartatu horretan arautzen da probintzia-osagarria, barruti bakar batean aurkezten diren formazio politiko txikiak balia ezin dezaketena.

Muga horren aplikaziotik ateratzen diren zenbatekoak ez dira inondik ere aski hauteskunde-kanpaina bat egiteko –Kontuen Auzitegiak berak 2015eko Tokik Hauteskundearen Kontabilitatearen Fiskalizazio-txostenean adierazi duen legez–; halatan, zenbateko horiek, batzuetan, txikiagoak izan ohi dira kasuan kasuko toki korporazioan ordezkariak lortuz gero formazio politikoek hauteskunde-gastuengatik lor litzaketan dirulaguntzak baino.

Horri gehitu behar zaizkio gehiegizko hauteskunde-gastuak izan ditzakeen ondorioak; izan ere, arau-hauste zehagarri gisa tipifikaturik ageri da Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan. Horren egungo testuan, % 10 baino gehiagoko gaindikinak gutxienez ere 50.000 euroko zehapena ekar dezake.

Egungo araubideak dakarren egoera zuzentzeko, beharrezkoa izanen litzateke bermatzea

hauteskunde-gastuaren mugak ahalbidetu egiten duela gutxieneko hauteskunde-kanpaina bat egitea edo, gutxienez ere, hauteskundeetako gutun-azalak eta propaganda zuzenean bidali ahal izatea, eta lotura duela jasoko diren hauteskunde-dirulaguntzen zenbatekoarekin.

Bestalde, Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. artikulua bigarren, hirugarren eta laugarren –b letran– apartatueta arau-hauste oso larri, larri eta arin gisa tipifikatzen dira, hurrenez hurren, alderdi politikoek Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko Lege Organikoan ezarrita dauden hauteskunde-gastuen mugak gainditzea, gainditutako ehunekoaren arabera. 17. bis artikulua, berriz, arau-hauste horiei dagozkien zehapenak ezartzen ditu, halako moduan non kasu guztietan gutxieneko zehapen bat ezartzen baita, 50.000, 25.000 edo 5.000 eurokoa, gaindikina arau-hauste oso larria, larria edo arina izatearen arabera, nahiz eta hauteskunde-gastuaren muga gainditzeari buruz hasiera batez ezartzen den zehapena izan hauteskunde-gastuaren mugaren gaindikinarekin halako bitik halako bostera bitartekoa.

Kontuen Auzitegiak izapidetutako zehapen-prozedurekin azkenaldi honetan izandako esperientziak agerian uzten du ezen, herri bakar batean lehiatzen diren formazio politiko txikien kasuan, gaindikin oso txiki batek 50.000 euroko zehapen neurrigabea ekar dezakeela, aplikatzea zaien hauteskunde-gasturako mugaren ondorioz.

Horregatik guztiatik, proposatzen da aldatzea bai Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko 5/1985 Lege Organikoaren 193. artikulua bai Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. bis artikulua, azken horren kasuan kenduz ezarri beharreko gutxieneko zehapena.

**1. artikulua.** Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko Lege Organikoaren 193. artikuluko 2. apartatuaren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

“2. Udal-hauteskudeetan, hauteskunde-gastuen muga izanen da alderdi, federazio, koalizio edo elkarte bakoitzak bere hautagaitzak aurkezten dituen barrutietako zuzenbideko populazioei dagokien biztanle-muga bider 0,11 euro egitetik ateratzen dena. Barruti bakar batean aurkezten diren alderdien edo hauteskunde-elkarteen kasuan, aurreko paragrafoan adierazitako hauteskunde-gastuen muga ezin izanen da 2.500 euro baino gutxiagokoa izan. Baldin eta alderdi edo elkarte horiek Estatuaren diru-laguntzak jasotzeko exigitutako baldintzetara iristen badira, hauteskunde-gastuaren muga ezin izanen da izan diruz lagundu daitekeen zenbatekoa baino txikiagoa. Probintzia bakoitzeko, hauteskudeetan gutxienez ere hartako udalen 100eko 50ean aurkezten direnek beste 150.301,11 euro gastatzen ahal izanen dituzte baldintza hori betetzen duten probintzietako bakoitzeko”.

**2. artikulua.** 1. Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. bis artikulua lehen apartatuaren azken paragrafoaren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

“a) apartatuan aurreikusitako zehapenak ez dira inolaz ere izanen berrogeita hamar mila euro baino gutxiagokoak”.

2. Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. bis artikulua bigarren apartatuaren b) letraren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

“b) 17. artikulua bigarren apartatuaren b) letran aurreikusitako arau-hausteen kasuan, egindako gastu-gaindikinarekin halako bitik halako bostera bitarteko zenbatekoa duen zehapena”.

3. Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. bis artikulua hirugarren apartatuaren b) letraren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

“b) Hirugarren apartatuaren b) letran aurreikusitako arau-hausteen kasuan, egindako gastu-gaindikinarekin halako bitik halako bostera bitarteko zenbatekoa duen zehapena”.

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu Hiesaren Plan Nazionalaren alorrean diharduten GKEak aintzatetsi, babestu eta diruz laguntzeko.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du arlo horretan diharduten GKEak aintzatetsi eta babesteko.

2. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko dekretua esparru sozio-sanitarioan eta hezkuntzaren esparruan modu orokorrean eta urgentziaz aplikatze aldera giza baliabidez eta baliabide materialez zuzkitzea Skolae programaren bidez nahiz gizarte-ongizatearen beste esparru batzuetan.

3. Nafarroako Parlamentuak sustatuko du Hiesari buruzko prestakuntza berezia irakasleentzat eta esparru soziosanitarioko profesionalentzat; bereziki, oinarritzko osasun laguntzakoentzat.

4. Nafarroako Parlamentuak GIBak “gaixotasun infekzioso-kutsakor” gisa duen katalogazioa erretiratzea defendatzeko konpromisoa hartzen du.

5. Nafarroako Parlamentuak 16/2012 Errege Lege-dekretua indargabetu dadin eskatzeko konpromisoa hartzen du.

6. Nafarroako Parlamentuak GIB-HIESA kontrolatzeko programa berreskuratzeko konpromisoa hartzen du, erreferentea izan baita herritarrentzat, eta funtsezkoa manifestu honen erreibindikazio guztiak taxutzeko, koordinatzeko, sustatzeko eta bultzatzeko”.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen baitio Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak Kuban mantentzen duen blokeo politiko, ekonomiko, komertzial eta finantzarioa altxatzeari.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen dio Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak Kuban mantentzen duen blokeo politiko, ekonomiko, komertzial eta finantzarioa altxatzeari, eta nazioarteko legezkotasunarekiko, bakearekiko, nazio-subiranotasunarekiko, askatasunarekiko

eta bi herrien arteko lankidetzarekiko errespetuan oinarritutako harremanen alde ageri da.

2. Nafarroako Parlamentuak Kubako Errepublikaren Espainiako enbaxadari helaraziko dio adierazpen hau”.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu manifestazio baketsurako eskubidea mugatzen edo erreprimitzen duen jarduketa oro.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak, giza eskubideen defentsarekin konprometituta dagoen aldetik:

- Arbuiatu egiten du manifestazio baketsurako eskubidea –Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunetik heldu dena– mugatzen edo erreprimitzen duen jarduketa oro.

- Amnistia Internazionalaren Ekialde Hurbilerako eta Afrika Iparralderako zuzendaritzaren adierazpenekin bat, arbuiatu egiten du Casablancako Apelazio Epaitegiak iragan ekainaren 26an –asteartea– Rif-eko (Hirak) herri-mugimenduko 53

ekintzaileren kasuan egindako epaiketa eta emandako epai zeharo bidegabeak.

- Espainiako bere Enbaxadaren bitartez Marokoko agintariei eskatzen die kondenak baliogabetu daitezzen, Hirak-eko ekintzaileak aska ditzaten, Rif-eko jarduketa guztietan giza eskubideak zorrotz errespetatu ditzaten eta gatazkak negoziazioaren eta elkarrizketaren bidez konpon ditzaten”.

- Adierazpen hau Nafarroako Gobernuari, Diputatuen Kongresuari, Espainiako Gobernuari, Espainiako bere Enbaxadaren bitartez Marokoko agintariei eta giza eskubideen defentsan konprometitutako Europako erakundeei helaraziko zaie”.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza



**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak zeharo arbuiazen baititu Uharteko Aniztasunaren Harresian egindako pintaketak, eta Skolae hezkidetzaprograma zeharo babesten duela berresten baitu.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak zeharo arbuiazen ditu Uharteko Aniztasunaren Harresian egindako pintaketak.

2. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du gure erkidegoan gertatzen den eraso, indarkeria edo jarrera LGTBIfobiko ororekiko arbuioa, eta lan egiteko konpromisoa hartzen du pertsona bakoitzaren modu oso, berdintasunezko eta askean bizi ahal izanaren duen gizarte bat eraikitzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Skolae hezkidetzaprograma zeharo babesten duela berresten du, eta Nafarroako Gobernuak Nafarroako ikastetxe guztietan –publikoetan nahiz itunduetan– hezkidetzaren eta hezkuntza afektibo-sexualaren aldeko apustu irmoa egin behar duela dio; hartara, legez ezarri beharko luke programa hori derri gorrezkoa dela”.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren 2019rako aurrekontuetan lankidetzara bideratutako diru-kopuruari buruzkoa.**

*NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren 2019rako aurrekontuetan lankidetzara bideratutako diru-kopuruari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Eskubide Sozialetako kontseilariak zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuaren 2019rako aurrekontuetan lankidetzara bideratutako diru-kopuruari buruz?

Iruñean, 2018ko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

## **Galdera, Erripagaineko udalez gairidiko plan sektorialari buruzkoa.**

*RUBÉN VELASCO FRAILE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Rubén Velasco Fraile jaunak aurkeztutako galdera, Erripagaineko udalez gairidiko plan sektorialari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Rubén Velasco Fraile jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer jarduketa egiten du Erripagaineko udalez gairidiko plan sektorialaren egoera eta etorkizunerako aurreikuspena direla eta?

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Rubén Velasco Fraile

## **Galdera, Ingurumenaren babesari buruzko legeari buruzkoa.**

*MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, ingurumenaren babesari buruzko legeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, kontseilari Isabel Elizalde andreak Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak noizko aurreikusten du Ingurumenaren babesari buruzko Legea Nafarroako Parlamentura ekartzea?

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

## **Galdera, Etxebizitzarako eskubide subjektiboari buruzkoa.**

*LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, etxebizitzarako eskubide subjektiboari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru par-

lamentariak, Legebiltzarreko Erregelamendua ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Joan den Osoko Bilkuran etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duen Foru Lege proposamenaren testua aurkeztu zen izapidetzeko. Hori dela-eta, galdera hau onartzea eta izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren ustez, etxebizitzarako eskubide subjektiboa 31 urteekin eta Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren adierazleko 14.053 eurotik goiti amaitu behar al da? Alegia, inguruabar horietatik aurrera galdu behar al dute nafarrek juridikoki exigi daitekeen eskubide subjektibo hori?

Iruñean, 2018ko azaroaren 21ean.

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

## **Galdera, PA-30 errepidearen gainean pasabide bat eraikitzeke Nafarroako Gobernua Iruñeko eta Orkoiengo udalekiko akordio bat susta zezan premiatzen zuen mozioari buruzkoa.**

*LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, PA-30 errepidearen gainean pasabide bat eraikitzeke Nafarroako Gobernua Iruñeko eta Orkoiengo udalekiko akordio bat susta zezan premiatzen zuen mozioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak, Legebiltzarreko Erregelamen-

duak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Aurtengo ekainean, Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuen mozio bat, zeinak Nafarroako Gobernua premiatzen baitzuen Iruñeko eta Orkoiengo udalekiko akordio bat susta dezan PA-30 errepidearen gainean pasabide bat eta horren lotuneak eraikitzeke, bermatze aldera oinezkoen eta txirrindularien komunikazio-segurtasuna, Orkoienen aspaldi eskatzen ari dena. Mozioan aipatzen zen hitzarmen bat gauzatzeko aukera. Bertan islatuko ziren egon litezkeen akordio ekonomikoak eta egin beharko lirartekeen obren gauzatea. Hori dela-eta, gaiaren gaineko berririk ez dagoenez, galdera hau onartzea eta Osoko Bilkuran izapidetzea eskatzen da, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan, jakiteko zer ekintza burutu diren aipatu mozioa joan den ekainaren 14an onetsi zenetik, hitzarmen bat garatzeko edo aipatu pasabidea egiteko.

Iruñean, 2018ko azaroaren 21ean.

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

## **Galdera, bizi-testamentuari buruzkoa.**

*MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, bizi-testamentuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Tere Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Bizi-testamentua oinarritzko osasun laguntzako osasun etxeko sistema informatikoan bakarrik agertzen da, baina ez ospitalekoan, azken hori bada ere gaixo terminalak artatzen dituzten tokia.

Aurreikusirik al dago bizi-testamentua ospitaleko sistema informatikoan sartzeko? Zer epeetan?

Iruñean, 2018ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

## **Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko zainketa aringarrien zerbitzuari buruzkoa.**

*MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ospitaleguneko zainketa aringarrien zerbitzuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Tere Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Ospitalegunean ez dago zainketa aringarrietako zerbitzurik. Nafarroan zerbitzu hori San Juan de Dios Ospitalean baino ez dago.

Aurreikusirik al dago zerbitzu hori Nafarroako Ospitalegunean abiaraztea? Zer epetan?

Iruñean, 2018ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

## **Galdera, Adingabe transexualak dauzkaten familiei zuzendutako laguntzako plan integral baten premiari buruzkoa.**

*MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, adingabe transexualak dauzkaten familiei zuzendutako laguntzako plan integral baten premiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Tere Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Adingabe transexualen familiek haurrendako protokolo integral baten beharra ikusten dute. Dagoeneko protokolo bat dago Hezkuntzan, baina ez Osasunean, garrantzitsua bada ere pediatriaren aldetiko arreta.

Aurreikusirik al dago Osasun Departamentuan pertsona horiendako protokolo bat lantzea? Zer epetan?

Iruñean, 2018ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

## **Galdera, Cascanteko Santa Vicenta María Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Cascanteko Santa Vicenta María Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

- Cascanteko Santa Vicenta María Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoak espazio-arazoak al ditu bertako ikasleei arreta egokia emateko?

- Hezkuntza Departamentuak ikastetxe hori handitzeko obrarik egiteko asmorik ba al du?

- Departamentuak nola azaltzen du herrian 0-14 urteko tartean errolatutako haurrak 2015ean 458 izatetik 2018an 604 izatera igaro izana?

- Departamentuaren ustez ikasle kopuruaren igoeraren arrazoa atzerriko jatorria duten ikasleen matrikulazio igoera al da?

- Zein izan da ikastetxe horretan, azken bost urteotan, atzerriko jatorria duten ikasleen eboluzioa?

- 2015etik aurrera zer neurri hartu dira aipatu ikastetxean, aniztasunerako arreta bermatzeko?

Corellan, 2018ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Galdera, Portugalen, Marokoren eta Espainiaren artean futboleko munduko txapelketa antolatzeko aukerari buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Portugalen, Marokoren eta Espainiaren artean futboleko munduko txapelketa antolatzeko aukerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut Portugal, Maroko eta Espainiaren artean munduko futbol-txapelketa antolatzeko proposamen bat egiteaz iragarri den aukerari buruz:

- Zer informazio duen Nafarroako Gobernuak gaiari buruz, eta ea bateragarri ikusten ote duen proposamen hori Marokok saharar herritarren eskubide indibidualak eta nazionalak etengabe urratzearekin.

Iruñean, 2018ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Brexitak Nafarroako ekonomian izan litzakeen ondorioei buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Brexitak Nafarroako ekonomian izan litzakeen ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut "Brexit" deitutako prozesuak Nafarroako ekonomian izan litzakeen ondorioei buruz:

1.- Zein dira Nafarroako Gobernuak aurreikusten dituen zuzeneko eta zeharkako ondorioak?

2.- Zer mekanismo abiarazi ditu eta abiaraziko ditu enpresei informazioa eta lagun egitea eskaintzeko?

3.- Brexitekin lotutako negoziazioei dagokienez Nafarroaren eta Estatuaren artean dauden informazio-bideen gaineko argibideak, eta haiei buruzko balorazioa.

Iruñean, 2018ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro